



SINATZAILEA

El Presidente de Mancomunidad Mendialdea /
Mendialdea Mankomunitateko Lehendakaria
UNAI MIRANDA BERROETA
2024/09/10



SINATZAILEA

El Secretario de Mancomunidad Mendialdea /
Mendialdea Mankomunitateko
MAIDER CASTILLA ELARRE
2024/09/10



MENDIALDEA MANKOMUNITATEA
Elbarren, 1, 1
31880 Leitza
Tlf / Fax: 948 510 444
info@mendialdea.eus

48/2024 Lehendakari Ebazpena.

Leitza, 2024ko irailaren 10ean

GAIA: Aldi baterako enplegua egonkortu eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagokion lanpostuak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Kontratazioa.

Unai Miranda Berroeta, Mendialdea Mankomunitateko Lehendakariak, kontuan hartuta, 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua, bere 21.1 h) artikuluan araututakoaren arabera ditudan eskumenak, honen bitartez,

ADIERAZTEN DU

LEHENENGOA: 2022ko azaroaren 14ko Nafarroako Aldizkari Publikoko 225. aldizkarian argitaratu zen Mendialdea Mankomunitateko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta prozesua arautuko duten oinarriak, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.- 2024ko maiatzaren 28an Mendialdea Mankomunitateko web orrialdean Mankomunitateko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren baitan, izendapen proposamena argitaratu, organo eskudunari igorri eta beharrezko agiriak aurkezteko 10 eguneko epea ireki zuen.

Aurkeztutako agiriak kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA: Jose Maria Aizpitarte Salaberria jauna Mendialdea Mankomunitatearen zerbitzurako lan kontratudun langile finko izendatzea peoi gidaria lanpostua betetzeko:

- Izen-abizenak: Jose Maria Aizpitarte Salaberria
- Txanda: Merezimendu-lehiaketa
- Lanpostua: Peoi gidaria
- Maila: D
- Araubide juridikoa: LK
- Hizkuntzak: Euskara (B1)
- Lanaldia: %100



MANCOMUNIDAD MENDIALDEA / MENDIALDEA
MANKOMUNITATEA

Egiaztapen-aseguru kodea: DYCA AAAX UU3P W9ZJ RKLW

Decreto Nº 48 de 10/09/2024 "Joxemariaren kontratazioa" - SEGRA 42534

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://egoitzaelektronikoa.mendialdea.eus/>

2tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

El Presidente de Mancomunidad Mendialdea /
Mendialdea Mankomunitateko Lehendakaria
UNAI MIRANDA BERROETA
2024/09/10



MENDIALDEA MANKOMUNITATEA
Elbarren, 1, 1
31880 Leitza
Tlf / Fax: 948 510 444
info@mendialdea.eus

BIGARRENA: Izendatutako izangaiak irailaren 26an jabetu beharko du lanpostuaz. Egun horretan, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostuaz jabetzen ez denak galdu egingo ditu deialdia egin duen toki-erakundeko lan kontratudun langile finko izateko eskubide guztiak.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau toki-entitatearen pertsonal-arloari helaraztea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraztea eta interesdunei jakinaraztea.

Leitzan, 2024ko irailaren 10ean,

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da:

- 1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.
- 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.



SINATZAILEA

El Secretario de Mancomunidad Mendialdea /
Mendialdea Mankomunitatea
MAIDER CASTILLA ELARRE
2024/09/10



MANCOMUNIDAD MENDIALDEA / MENDIALDEA
MANKOMUNITATEA

Egiaztapen-aseguru kodea: DYCA AAAX UU3P W9ZJ RKLV

Decreto Nº 48 de 10/09/2024 "Joxemariaren kontratazioa" - SEGRA 42534

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://egoitzaelektronikoa.mendialdea.eus/>

2tik 2 orrialdea